



Donostiako Udalak **partaidetzazko aurrekontuen prozesua** bideratuko du 2021ean herritarrek zein elkarteek udaleko 2022ko eta 2023ko aurrekontu proiektuan esku har dezaten .


Prozesuaren bitartez, **herritarrek euren auzoaren eta Donostiaren** beharrei buruz hausnartu eta arlo desberdinetan **nola hobetu proposatu ahal izango dute**. Udalak horien bideragarritasuna aztertuko du, herri botazio bidez lehentasunak ezarriko dira eta horren arabera **2022rako eta 2023rako 3.000.000 €** gordeko dira kopuru horretaraino iristen diren proiektuak udal aurrekontuan sartzeko eta gauzatzeko.

Ekialdeko Barrutiari dagozkionez, barrutiko batzarrak erabaki du 2022ko ariketarako 421.000 € jarriko dituela, hau da, bere aurrekontuaren %50a.

Herritarrak zuzenean prozesuaren hiru unetan izango dira protagonista:

- **Auzoa egiten** (martxoaren 1etik 21era): plataforma digital baten bidez, herritarrek euren bizilagunekin auzoko beharrei buruz hitz egin eta horiek hobetzeko proposamenak partekatu ahal izango dituzte. Horretarako inkesta bat erantzun, auzokako foro digitaletan parte hartu edo auzo bakoitzean egingo diren bidekonferentzia saioak izango dituzte.
- **Proposamenak egitea** (martxoaren 15etik 28ra): online edo era presentzian Herri Partaidetza Zerbitzuaren bulegoan egin ahal izango da.
- **Herritarrek botoa ematea** (ekainaren 14tik 27ra): online edo era presentzian Herri Partaidetza Zerbitzuaren bulegoan egin ahal izango da.

PROZESUAREN FASEAK



1. AUZOA EGITEN (2021eko martxoaren 1etik 21era)

Prozesuaren nondik norakoak ezagutarazi eta auzokideen artean behar eta proposamenak partekatzen hasteko helburua izango du fase honek.

Hortaz, prozesua aurkeztu egingo da, herritarrei parte hartzeko argibideak eman eta baldintzak zeintzuk diren azalduko dira.



Gainera, auzokideen artean beharren inguruan aritu eta proposamenak partekatzen hasteko, **online plataforma** bat erabiliko da prozesuaren girotze fase honetan, auzokideen arteko harremanak bultzatu eta ikuspuntu edo interes desberdinak jasotzen dituen proposamen osatuagoak lortze aldera.

Planteatzen den dinamika digitala **auzoka** izango da. Plataforma horretan lehenengo **inkesta** bat egongo da norbanakoaren hausnarketa bultzatzeko auzoaren egoera eta beharren inguruan. Inkestaren emaitza aintzat hartuta **auzo bakoitzeko foro digital** bat irekiko da eta bertan inkestan ateratarako gaien inguruan elkarriketa bideratuko da.

Foro digitalaz gain, **bideokonferentzia bidez auzoko bilera** deituko da. Partaidetzaren ikuspuntutik, garrantzitsua ikusten da gai desberdinen inguruan elkarriketa sustatzea eta ideien sormen kolektiboa bultzatzeko auzokideak topatzeko une bat izatea.

Plataforma horretan parte hartu ahal izateko herritarrek nahiz elkarteek izena eman beharko dute (inkesta betetzeko izan ezik), beraz, foroan parte hartzen duten pertsonak identifikatuta egongo dira.

Plataforman ez dira proposamenak jasoko, unea iristen denean, prozesuaren webgunera bideratuko dira parte hartzaileak proposamenak egiteko.

2. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO FASEA (2021eko martxoaren 15etik 28ra)

Norbanakoek nahiz elkarteek egin ahal izango dituzte proposamenak, ondorengo baldintzak betetzen badituzte:

- **16 urte baino gehiago** izatea. Ez da beharrezkoa izango hirian bizitzea, baina harekin harremana izanez gero, harreman hori zein den adieraztea eskatuko da (Donostian bizi, ikasi, lana egin, bizitza soziala egin, etxebizitza bat izan edo negozio bat duen).
- **Elkartea bada, Erakundeen Udal Erregistroan inskribatuta** egon beharko du.

Proposamenak aurkezteko fasean parte hartzeko bide bakarra lineakoa izango da, www.donostia.eus webgunean berariaz sortu den gunean. Horretarako laguntza behar izanez gero, modu presentzian Herri Partaidetzaren bulegoan egiteko aukera eskainiko da.

Proposamen bat egiteko, pertsona edo elkarte guztiek haien burua identifikatu beharko dute eta proposamenaren izenburua sartu behar izango dute; zer hobetu nahi duten, non dagoen eta nola egingo luketen adieraziz. Zehaztasunez bete beharreko eremuak izango dira.

Pertsona eta elkarte guztiek nahi adina proposamen egiteko aukera izango dute baina fitxa batean proposamen bakarra jasoko da.



Iraingarriak diren edo errespetuaren eta giza eskubideen kontrakoak diren proposamenak baztertu egingo dira.

Udalak antzeko proposamenak multzokatzea proposatuko die aurkeztu dituzten pertsoneri edo elkarteei.

Proposamenak **botoa emateko fasera pasatzeko baldintzak** honakoak dira:

- Udal eskumenekoak izatea.
- Udal politika orokorrarekin kontraesanean ez egotea.
- Interes publikokoa izatea.
- Inbertsioa izango den proiektua izatea.
- Dagokion urtean exekutatu ahal izatea.
- Partaidetza prozesu baten emaitza ez ezabatzea edo onartua dagoen udal plan baten kontra ez joatea.
- Hurrengo aurrekontuak konpromisoan ez jartzea.
- Bideragarritasun azterketa gainditzea.
- Gehienez 300.000 euroko inbertsioa eragitea.

3. AZTERKETA FASEA (2021eko apirilaren 12tik ekainaren 6 arte)

Epe honetan jasotako proposamenen gaineko bideragarritasuna aztertuko du udalak. Proposamen bakoitzaren gaiaren arabera dagokion departamentuari esleituko zaio eta berau izango da aurreko baldintzak betetzen dituen aztertuko duena.

4. PROPOSAMENAK ARGITARATZEKO FASEA (2021eko ekainaren 7tik 13ra)

Dagozkien arlo eta departamentuek barne azterketa egin ostean, botoa jaso dezaketen proposamenak eta botoa jasotzerik ez dutenak argitaratuko dira, herritarrek haien proposamen egoera begiratzeko aukera izan dezaten.

Proposamenak lurraldeka eta gaika antolatuko dira; bi aldagaiak erabili ahal izango dira, bilaketa azkarragoa eta dituzten interesen araberakoa egiteko.

5. PROPOSAMENAK LEHENESTEKO FASEA: BOTO EMATEA (2021eko ekainaren 14tik 27ra)

Lehenesteko fasean parte hartzeko bi bide egongo dira:

- Lineakoa, www.donostia.eus-en berriaz sortutako gunearen bitartez egingo dena (izaera unibertsala, irisgarria, anonimoa eta sekretua izango du),
- Presentziala, Herri Partaidetzaren bulegoan egingo dena. Horretarako aldeztu aurretik hitzordua eskatu beharko du herritarrek.

Proposamen bakoitzari botaziorako kode bat esleituko zaio eta herritarrek **bost proposamenei eman beharko diete botoa.**



Parte hartzeko baldintzak honakoak izango dira:

- Pertsona fisikoak izatea.
- Bozkatzeko unean, 16 urte baino gehiago izatea.
- Donostian erroldatuta egotea.

6. EMAITZAK ARGITARATZEA (2021eko ekainaren 28ko astean)

Herritarren botoen emaitzei erreparatuta, lehentasuna duten proposamenen zerrenda osatuko da. Zerrendako lehenengo proposamena boto gehien jaso dituen izango da eta azkena, berriz, boto gutxien jaso dituen izango da.

Programa honetarako ezarritako diru kopurua aintzat hartuta (1.500.000€ 2022rako eta beste horrenbeste 2023rako) erabakiko da zein proposamen sartuko diren aurrekontuan.

7. HAUTATUTAKO PROIEKTUEN SEGIMENDUA (2021eko ekainaren 28tik aurrera)

Herri Partaidetza zerbitzuaren webgunean ikus ahal izango dira udal aurrekontuan sartuko diren proiektuak. Bertan, proiektuen egoeraren segimendua egin ahal izango da, erabat gauzatzen diren arte.

8. EBALUAZIOA

Partaidetzazko aurrekontuen prozesua Herri Partaidetza ataleko taldeak ez ezik, prozesuan arituko diren udaleko hainbat departamentuetako arduradunek ere baloratuko dute, modu jarraituan.

Parte hartu duten hainbat herritarrekin ere ebaluazioa egitea aurreikusten da: proposamenak egin, horien aukeraketa egin eta boto emateko prozedura baloratzeko. Bestalde, komunikazioaren inguruan ere herritarren ikuspuntua jasoko da.